

Uemak liburuzain eta osasun langile elebidunen eskea egin du Nafarroako Parlamentuan

Eremu euskalduneko liburuzain bakar batek ez du egun hizkuntza eskakizunik; osasun arloan ere langile gutxiak

ARANTXA IRAOLA

Nafarroako 35.000 biztanle inguru bizi dira, gaur egun, Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen sarean; euskaldunen indizea %70etik gorakoa duten hamalau herritan daude banatuta, eta euskaraz bizitzeko konpromisoa hartua duten udalerririk dira guztiak, mankomunitatearen abaroen horretarako aurrerapausoak eman nahi dituztenak. Baina bai horietan, bai eta eremu euskalduneko gainerakoetan ere — biztanleen %72 euskaldunak dira—, zailtasunak handiak dira, eta, atzo, hain justu, horien berri ematera joan ziren Nafarroako Parlamentura Uemako ordezkariak; OEE Osasuna Euskalduntzeko Erakundearekin eta Nafarroako Liburuzainen Elkarte Asnabi elkartearekin hitzartutako hainbat eskakizun plazaratu zituzten. Bi hutsune nabarmen betetzeko eskaera egin zuten, beste hainbaten artean: eremu euskalduneko liburuzainei eta emakumeen zentroetako langileei hizkuntza eskakizunak ezartzeko.

Uemako zuzendaritza batzordeko Jon Abrilek eta Eneka Maizek hartu zuten hitza. Egoera zaila islatu zuen Abrilek: «Hizkuntza eskubideak etengabe urratzen dira, eta hizkuntza erabilerari buruzko irizpideak ez dira aintzat hartzen». Adierazi zuenez, eremu euskalduneko bederatzi herri daude Nafarroako liburutegien sarean sartuta, eta hamar langile ari dira. Legearen arabera, eremu euskalduneko biztanleek bermatuta behar lukete euskarazko zerbitzua, baina liburuzain postu horietatik bakar batek ere ez du hizkuntza eskakizuna ezarria. Oso larria iruditzen zaie. Abril: «Gai hau aukeratu dugu liburutegiek kultur sarbiderako berebiziko garrantzia dutelako». Alde horretatik, Asnabirekin batera hitzartutako eskakizunen berri eman zuen. Hara gako nagusiak: lanpostu denei hizkuntz eskakizuna jartzea, eskakizun hori C1 mailakoa izatea, eta egun lanean ari diren liburuzainak euskalduntzeko plan bat martxan jartzea. Eskatzen dute eremu mistoko postu batzuei, halaber, hizkuntza eskakizuna ezartzeko, eta urratsak egiteko, oro har, Nafarroa osoko liburutegietan euskararen presentzia handitzeko.

Osasun arloan ere egoera iluna islatu zuten; Osasunbidean ere erdara nagusi da eremu euskaldunean, non eta euskaldunak lege geriza behar lukeen udalerririk horietan. Hara datuak: 131 lanpostutatik 31k bakarrik dute hizkuntza eskakizuna ezarrita, eta denek V1 mailakoa. Oinarrizkoena. «Ez du bermatzen euskarazko komunikazioa», salatu zuen Eneka Maizek. «Harrigarria bada ere, ez dago bakar bat ere V3 eskakizunarekin». Altsasu, Elizondo, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza, Lesaka, Doneztebe eta Ultzamako osasun zentroetako datuak izan zituzten hizpide. Horietako zuzendariak ez dute jarria hizkuntza eskakizunik, eta erizainen arduradun bakar batek ere ez. Hori ere «politika jakin baten isla» dela argi dute Ueman. Lanpostu elebakarrak

Emakumeen arretarako hiru zentrotako datuak ere eman zituzten: Etxarri Aranatz, Elizondo eta Burlatakoak. Eremu euskalduneko andreen artarako horiexek daude. Hamasei langile ari dira, baina postuetako bakar batek ere ez du hizkuntza eskakizunik ezarria. Ondorioa argia da. Eneka Maiz: «Ia ezinezkoa da horietan euskaraz artatua izatea»

Alde horretatik, Uemak, OEErekin batera, hainbat eskakizun egin ditu. Ereku euskalduneko osasun etxeetako lanpostu guztiei hizkuntza eskakizun elebiduna jartzea, eta pediatrik, medikuak eta jendaurrean ari diren langileak lehenestea. Horietan V3 maila eskatzea proposatu dute. Halaber, emakumeen arretarako zentroetako lanpostuetarako ere eskakizun elebiduna ezartzeko eskatu dute, eta plaza ordezkotetan ere ziurtatzeko langile euskaldunak egongo direla. Era berean, gainerako alorretan ere —seinaleak, txostenak, inkestak eta abar— euskara txertatzen hasteko eskakizuna egin dute.

«Elkarlanerako» deia egin du

«Elkarlanerako prest gaude», Uemako ordezkari biek sarri azaldu zieten atzo parlamentariari, elkarlanean aritzeko borondatea. Ez zuten parlamentari denen partetik atxikimendu bera lortu, ordea. Nekane Perezek (Aralar-NaBai) eta Bakartxo Ruizek (Bildu) «lotsa» azaldu zuten aurkeztutako datuen inguruan. Kritika egin zioten Nafarroako Gobernuari daraman hizkuntza politikagatik, eta borondatea azaldu zuten egoera aldatzen saiatzeko. Uemak atzo salatu zuen hainbat bilera eskakizun egin dituztela gobernuko ordezkariekin auzi horiek argitzen saiatzeko, baina antzuak izan direla beti egindako ahaleginak. Alde horretatik ere laguntzeko asmoa azaldu zuten bi parlamentariak. Ruiz: «Kezkagarria iruditzen zaigu administrazioak erantzunik ez ematea». Perezek azaldu zuen, gainera, «egingarriak» direla proposamenak.

Gainerako taldeek ez zuten, ordea, tankera horretako jarrerarik izan. Esker oneko hitzak izan zituzten guztiek Uemako ordezkariarentzat, baina agerian utzi zuten hizkuntza eskubideak errespetatzea ez dutela lehentasunen artean. Osasunbideko datuen harira izan zen hori, batez ere, agerikoa. UPNko parlamentari Javier Lorentek, esaterako, Uemako kideei emandako erantzuna baliatu zuen, gobernuari egindako kritikak gaitzesteko. «Euskara ezabatu nahi dela? UPNk behintzat ez». Areago: «Gobernuak legea betetzen du; jakina, eskura dauden medikuen artean. Ahal den guztia egiten da langile euskaldunak jartzeko eremu euskaldunean». PSNtik Samuel Caro mintzatu zen. «Ez dut polemikarik nahi», hasi zen.

«Lehentasuna ez da hizkuntza; zerbitzu ona ematea da». Ezkerrako eta PPko ordezkariak ere, ildo berean. Kontu hartu zien Eneka Maizek: «Harridura sortu digu profesional euskaldunen profesionaltasuna auzitan jartzeak». Eta aldarri egin zuen: «Legeak badio eskubidea dugula, ezin da ezbaian jarri». Pozik dira agerraldiarekin, emaitzen zain.